

ISILPEKOTASUNAREN TRATAMENDUA EUSTAT-EN  
ESTADISTIKA ERAGIKETETAN



**EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA**  
INSTITUTO VASCO DE ESTADISTICA

Donostia-San Sebastián, 1  
01010 VITORIA-GASTEIZ

Tel.: 945 01 75 00

Fax: 945 01 75 01

E-mail: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

[www.eustat.es](http://www.eustat.es)

## Aurkezpena

Hornitzaileen (etxeak, norbanakoak, enpresak, administrazioak eta beste) estatistika-isilpekotasuna mantentzea, ematen duten informazioa isilpean mantentzea eta informazio hori estatistikarako bakarrik erabiltzea zeharo bermatu beharreko baldintzak dira estatistika-jardunaren barruan. Babes hau pribatutasun eskubideari dagokio, konstituzioak herritar guztiei aitortzen diena; estatistikako legeek bermatzen dute, zehazki Euskal Estatistika Legeak, estatistikako sekretua eta datu individualizatuen babes aipatzen dituena (Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen IV. kap.).

Hornitzaileen sekretu estatistikoa mantentzea eta datu individualizatuak isilpean edukitzea da estatistika-erakunde baten sinesgarritasunaren berme. Horregatik, berme hori estatistika-jardunaren fase guztietan ziurtatu behar da. Lan hau datuak hornitzaileengandik jasotzeko fasean bertan hasi behar da. Babesa datuak biltzeko metodo ezberdinei egokituko zaie, bai modu pertsonalean egiten denean, bai datuak telefonoz edo telematikoki jasotzen direnean. Datuak babestu beharra kontuan izan behar da informazioaren tratamenduan ere, informazioa balioztatzeko, extrapolatzeko eta ustiatzeko faseetan, estatistika-hedapenean datuen babesarekin bukatuz.

Europako Estatistiken Jardunbide Onen Kodean, Estatistikako Programaren Batzordeak 2005eko otsailaren 24an bere egin zuena, estatistikak sortzean eta hedatzean isilpekotasuna babesteari buruzko jarraibideak eta orientazioak eman beharra finkatu zen. Orientazio horiek idatziz jarri behar dira eta jendeari jakinarazi.

Azken alderdi horren harira egin da agiri hau. Beraren helburua estatistikaren hornitzaileari eta erabiltzaileari (eta jendeari, oro har) isilpekotasunaren tratamenduaren berri ematea da, EUSTATEk egiten dituen estatistika-eragiketen barruan, eta estatistiken sorreraren faseetako bakoitzean isilpekotasuna arautzen duten arauak jakinaraztea.

Dokumentua hiru ataletan banatzen da. Lehenengoan, datuak biltzeko fasean isilpekotasuna babesteko gomendioak sartzen dira. Bigarrenean, produkzio-fasean bete beharreko arauak ageri dira. Hirugarren atalean, fitxategiak eta taulak hedatzean aplikatutako arauak azaltzen dira.

Azkenik glosategi bat dago, estatistikako datuen babesari buruzko terminoekin. Lege-esparruari buruzko erreferentzia nagusiak ere azaltzen dira, eta jarduketa honen oinarri diren gomendio teknikoak, gai honetan Euskal Estatistika Erakundearen eta bere organismoaren oinarri eta printzipioak osatzen dituztenak.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko ekainean

Josu Iradi Arrieta

Zuzendari nagusia

# Isilpekotasunaren tratamendua informazioaren bilketan

Berez, informatzaileen estatistika-informazioa jasotzeko egin behar diren landa-lanak hartzen ditugu informazio bilketatzat.

Baina gaur egun, automatizazio sistema berriak ezartzearen ondorioz, datuak arazteko, grabatzeko eta kodetzeko prozesuak informazio-bilketarekin batera egiten dira.

Horrenbestez, isilpekotasuna babesteko eta gordetzeko atal honetan deskribatu ditugun neurriek eta prozedurek prozesu horiek ere hartuko dituzte barnean, baldin eta bilketa-prozesuan inplizitu badoaz.

## Langileek estatistika-sekretua gordetzeko duten betebeharra

Estatistikako sekretua betebehar juridikoa da. Estatistikako langile guztiak, estatistikako informazio indibidualizatua daukaten pertsona fisiko edo juridikoak, eta estatistikako funtzio publikoan eskumena duten administrazio publikoen organo guztiak, sekretu hori dela bide, behartuta daude informazioa ematen duten pertsonen datu indibidualak edo datu indibidualizatuak ez zabaltzera (ez zuzenean ezta zeharka ere).

Estatistikako sekretuaren ondorioz, era berean, estatistika zerbitzuek informatzaileengandik zuzenean jasotako datuak estatistikakoak ez diren helburuetarako erabiltzea debekatuta dute. Hau da, datu horiek ezin ditzakete erabili estatistikaz besteko helburuetarako.

Informazioa biltzen duten langile guztiak eta EUSTATen barruan beste edozein funtzio betetzen duten langileek isilpekotasun klausula sinatu behar dute (Estatistikaren Euskal Legearen 15. artikulua).

Isilpekotasunaren klausula hori Eustatek zuzenean kontratatutako langileek eta datuak biltzeko azpikontratutako langileek onartu behar dute.

## Informatzailearen eskubideak eta betebeharrak

Pertsonak edo erakundeek eskatzen zaien informazio estatistikoa eman behar dute, izaera fisikoa nahiz juridikoa, publikoa nahiz pribatua izan.

Datuak eskatzen zaionari ondokoa jakinarazi behar zaio alde zuzenetik, beren-beregi eta zehatz-mehatz:

- Fitxategia existitzen dela, datu-bilketa zertarako den eta informazioa norentzat den.
- Eskatutako datuak eman ezean ondorioak zeintzuk izango diren.
- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak gauzatzeko eskubideak dituela.

Informazio hori **gutun bidez** jakinarazten zaie informazioaren hornitzaileei, alde zuzenetik. Gainera, datu-bilketako fasean **inkestak-egileak** errepikatu egiten dizkiete, eta **galdetegian** bertan idatzita daude.

## Informazioa biltzeko fasean datuak babesteko neurri fisiko eta teknikoak

Neurri hauek datuak biltzeko kontratatutako langileengan eta informazioa biltzeko sistema automatikoengan dute eragina.

- **Inkesta-egile txartelaren** erabilera. Pertsonala eta transferi ezina. Inkesta-egileak aurkeztu behar du, datuak biltzen dituen unean. Datuak biltzeko ahalmena ematen dio eta estatistika-sekretua gordetzera behartzen du.
- **Informazioaren babesa.** Landa-langileek datu pertsonalak eta estatistika-sekretuaren menpeko datuak **isilpean** gorde behar dituzte, etengabe, eta ezin dituzte kanpora igorri, salbu eta horretarako baimen egokia jasotzen badute.
- **Formatuak eta euskarriak.** Datu pertsonalak edo estatistika-sekretuaren menpeko datuak dauzkaten txostenak paperezko formatuan ahalik eta gutxien erabili behar dira. Txostenak paperean eginez gero, leku seguru batean gorde behar dira, inoren eskutatik babestuta. Horrelako informazioa duten euskarri guztiak itzuli eta leku seguru batean gorde behar dira, haiek aldi batez erabili beharra ekarri duten lanak bukatutakoan.

- **Baimendutako erabilerak.** Erabiltzaile-izenaren eta pasahitzaren bidez, baimendutako langileei datuak automatikoki biltzeko eta grabatzeko sistemak (PDAk, ordenagailu eramangarriak, ordenagailu pertsonala, ...) erabiltzeko baimena eman ahal zaie. Datuak eskuratzeko tresnak (hau da, erabiltzailearen izena eta pasahitza) pertsona bakar batentzat dira, eta betiere estatistika-eragiketa jakin baterako. Gainera, informazioa datu-bilketako dispositibo mugigarrietatik iraultzeko eta berreskuratzeo, kasu askotan, horrelako ekintzak egitea ahalbidetzen duen baimen berezia beharrezkoa da.

Oro har, sarbideak erabiltzea eta esleitzea EUSTATen Segurtasun Agirian aipatzen den arautegiaren bidez arautuko da, Datuak Babesteko Lege Organikoa betetzeko garatua (15/1999 Legea).

- **Gorabeheren erregistroa.** Landa-langileek datuen segurtasuna kaltetzen duten edo kaltetu ahal duten gorabeherak jakinarazi behar dizkiote arduradunari: datu-bilketa elektronikoko euskarriak edota zerrendak galtzea, baimendutako erabilera beste pertsona batzuek behar ez bezala egitea, datuak berreskuratzea, etab.
- **Datuak Internet bidez biltzea.** Web-galdetegien bidez biltzen den informazio estatistikoa EUSTATen datu-baseetan gordetzen da zuzenean. Datu estatistikoetarako sare bereiztua eta isolatua du.

# Isilpekotasunaren tratamendua estatistika-produkzioan

Estatistiken produkzioko prozesuak fase guztiak biltzen ditu: datuak biltzen direnetik, ezarritako bideetako edozeinetatik jakitera ematen direnera arte. Fase horietan datuak balioztatzeko, egozteko, extrapolatzeko, ustiatzeko eta biltzeko tratamenduak sar daitezke. Prozesu honetan datuak babesteko eta isilpekotasuna gordetzeko araudia eta jarraibideak, batez ere, datu babestuak dauzkaten fitxategiak eskuratzeko, tratatzeko eta biltzeko ezarritako segurtasun-protokoloetan oinarrituko dira, datu pertsonalak nahiz datu estatistikoak izan. Araudi hori EUSTATen Segurtasun Agirian zehatz ageri da.

## Langileek estatistika-sekretua gordetzeko duten betebeharra

EUSTATEko langile guztiak isilpekotasun klausula sinatu behar dute. Segurtasun Agirian ezarritako araudia betetzeko konpromisoa ere sinatu behar dute.

Era berean, datuak biltzeko, tratatzeko edota aplikazioak garatzeko kontratatutako enpresek erabiltzen dituzten datuen isilpekotasun klausula sinatu behar dute.

Beste enpresa batzuekin egiten diren kontratuetan ondoko klausula hauek agertuko dira:

### *Zerbitzuaren araberako klausula zehatzak:*

- Kontratutako lanen definizioa, haien helburua eta haien egiteko jarraibideak.
- Datu babestuak dauzkaten euskarriak deuseztatzeko edo kontratu-egileari itzultzeko jarraibideak.
- Kontratutako enpresak lanak egiteko ezarri behar dituen segurtasun-neurriak, tratutako informazioaren izaeraren araberakoak.

### *Orokorrak:*

- Kontratutako enpresaren konpromisoa, ondokoak adierazten: datuak Eustatek emandako jarraibideen arabera soilik tratatuko dituela, ez dituela

erabiliko edo aplikatuko kontratuan ageri ez diren moduetan edo helburuekin, eta ez dizkiola beste inori jakinaraziko (ezta gordetzeko helburuarekin ere).

- Kontratutako enpresaren konpromisoa, lanak zehaztutako segurtasun neurriak betez egingo dituela adierazten.
- Kontratutako enpresaren konpromisoa, kontratu-harremana bukatutakoan datu babestuak dauzkan euskarri oro deuseztatuko duela edo kontratugileari itzuliko diola adierazten.
- Erantzukizun-klausula, baldin eta kontratatutako enpresak datuak beste helburu batekin erabiltzen baditu, jakinarazten baditu edo kontratuaren estipulazioak bete gabe erabiltzen baditu.

Ez da baimenduko estatistikak egiteko bildutako datuak administrazio fitxategietara transferitzea.

## Estatistikaren produkzioko prozesuan datuak babesteko neurri fisiko eta teknikoak

Neurri hauek EUSTATen langileentzat eta informazioa prozesatzeko eta biltzeko langileentzat dira. Prozesuaren fase honetan erabilitako sistema eta aplikazio informatikoak garatzeko ere badira.

- Eustateko solairuetako **sarrerako ateak**. Eustat-ek, segurtasun-neurri osagarri gisa, bere dependentzietan sartzeko sistema berezia dauka (txartelak). Sistema horren bidez, institutuan lan egiten duten pertsonak soilik sar daitezke bertan.
- **Lanpostuko** neurriak. Langile bat bere lantokian denboraldi luze batean ez bada egongo, lantokian ezin da egon dokumentaziorik ez materialik. Giltzez itxi daitezkeen tiradera eta armairuetan gorde beharko ditu, eta lanean ez dagoen denboraldian giltzez itxi. Gainera, ordenagailu pertsonala itzalita edo “erabiltzaileak blokeaturik” egon behar da, edukiari erabilera okerra ez emateko.

- **Formatuak eta euskarriak.** Institutuaren dependentzietan sartzen diren edo haietatik irteten diren datu-euskarri guztiak jarduketa-protokolo zorrotz baten bidez kontrolatuko dira. Protokolo horrek informazioaren jarraipena eta erregistroa bermatuko ditu. Gainera, datu guztiak ingurune seguruetan zentralizatuko dira; ingurune horrek sarrera murriztua izango du.
- **Datuak Prozesatzeko Zentroan** sartzea. Dependentsia hauetan edo datu babestuak biltzen dituzten beste batzuetan sartzeko atak itxita egongo dira etengabe. Dependentsia horietan sartzeko eta egoteko baimena eduki behar da.
- **Datu indibidualizatuen bidalketa.** Datu indibidualizatuak baimendutako pertsonak bidali behar ditu, betiere enkriptazio elektronikoko sistema erabiliz.
- **Baimendutako erabilerak.** Langileek eguneroko lanerako behar dituzten babestutako datu eta baliabideak soilik ikus ditzakete. Horretarako, ematen zaizkien erabiltzaile-izena eta pasahitza bakanak eta transferi ezinak dira. Horien bitartez, datu eta baliabide jakin batzuk soilik ikus ditzakete.
- Erakundearen barruan garatzen ari diren aplikazio informatikoen **probetarako** benetako datuak **eskuratzeko**, baimen berezia beharko da. Baldintza hauekin egingo da:
  - Datu errealak dagozkien pertsonengandik disoziatzeko prozesu bat egingo da. Horrela, jasotako informazioa ezin izango zaio pertsona jakin bati egotzi.
  - Datuak disoziatzen ez badira, erabiliko diren datuen izaerari dagokion segurtasun-maila bermatu beharko da.
- Sortzen diren **aldi baterako fitxategiek** euren datuen jatorrizko fitxategi maisuei dagozkien segurtasun-neurri berberak izango dituzte. Oro har, fitxategi horiek sortzeko eta kudeatzeko arau hauek bete beharko dira:
  - Unitate erabiltzailearen lanarekin zerikusia duten berriazko prozesuetan erabiltzeko direnean soilik erabiliko dira aldi baterako fitxategiak.
  - Fitxategi horiek ezin daitezke kokatu PC-en disko gogor lokaletan, ezin izango dira erabilera-diskotik kanpora atera ezta euskarri informatikoetan kopiatu (gordetzeko ere ez).

- Fitxategi hauek euren helbururako erabilgarri ez direnean, sortu dituen erabiltzaileak ezabatu egingo ditu.
- **Gorabeheren erregistroa.** Erabiltzaile batek datuen segurtasuna kaltetu dezakeen gorabeheraren bat aurkituz gero, Datuak Prozesatzeko Zentroari jakinaraziko dio. Zentro hori izango da segurtasuneko gorabeheren erregistroa mantentzeko arduraduna, eta datu babestuei buruzko informazio guztia idatziko du.

# Isilpekotasunaren tratamendua estatistiken hedapenean

Edozein estatistika-eragiketaren ondorioz egiten diren taula, grafiko, fitxategi, agiri eta argitalpenak, finkatutako komunikazio bide eta bitartekoetatik banatuak, estatistika-eragiketen hedapena dira. Ezinezkoa da pertsonen zuzeneko identifikazio indibidualik egitea, Euskal Estatistika Legearen aplikazio zorrotzari esker, estatistikako sekretua gordetzearen ondorioz eta *Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa* betetzearen ondorioz. Horregatik, datuak estatistikarako hedatzeko fase honetan, datuak babesteko neurri eta irizpideak erakundeak edo norbanakoak zeharka identifikatzea galaraztera bideratuta daude, analisi edo ustiapen oso xeheak argitaratzearen ondorioz, erakunde edo norbanakoei buruzko informazio sentikorra edo isilpekota azalarazi dezaketenak.

Neurri eta jarraibide horiek informazioa hedatzeko erabiltzen den formatuaren eta informazioaren izaera orokor edo zehatzaren arabera izango dira. Taulak eta mikrodatuak hedatzean aplikatu beharreko neurri orokorretan zentratuko gara batez ere.

## Taulak hedatzean babes-irizpide orokorrak

- Aldagai-gurutzaketetan maiztasun txikiko gelaxkarik ez da argitaratuko baldin eta aldagai sentikorrik badago eta taula 10.000 biztanle baino gutxiagoko eremu geografiko bati badagokio.
- Gelaxkak zenbakizko aldagaiekin edo magnitudeekin ez dira argitaratuko, bertatik modu erraz batean ondorioztatu ahal baldin bada gelaxkari balioa ematen dion estatistika-unitateren baten kontribuzioa (norbanakoak, familiak, establezimenduak, enpresak, ...). Hori zergadun gutxiren aurrean edo gelaxkara kontribuzio dominanteak daudenean gertatzen da.
- Horrelako gelaxkarik sortu ez dadin, sentikortasun irizpideak eta aldagaiak birkodetzeko teknikak edota gelaxkak kentzeko metodoak aplikatu ahal izango dira, taula modu egokian babesten dutenak eta ahalik eta informaziorik gehien gordetzen dutenak.

## Mikrodatuak hedatzean babes-irizpide orokorrak.

- Hedatzen diren mikrodatuen fitxategiek ez dute inola ere barruan hartuko erregistroko identifikatzaileak ezta datu pertsonalik (*Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa*).
- Oro har, zabaltzen diren mikrodatuen fitxategiek ez dute erakutsiko **10.000 biztanle baino gutxiagoko eremurik** aipatzen duen identifikatzaile geografikorik. Horrenbestez, **muga hori baino txikiago diren eremu geografikoetarako ez da mikrodatuen fitxategirik banatuko.**
- Mikrodatuen fitxategian dauden gainerako aldagaien xehetasuna maila geografikoaren eta aldagaiaren sentikortasunaren arabera izango da. Hedatutako eremu geografikoa hainbat handiagoa izan eta aldagaiaren sentikortasun-maila hainbat eta txikiagoa izan, orduan eta desagregazio kontzeptual handiagoa egongo da.
- **Babes osagarri** gisa, mikrodatuak aldatzeko teknikak aplikatu daitezke, edo erregistroak trukatu, aldagai kuantitatiboak ausazko kopuru txikietan aldatuz edota atributuak modu kontrolatuan trukaturik, hurbileko eremu geografikoen erregistroen arabera, betiere lurralde historikoen arabera banaketak errespetatuz (batez bestekoak, osoak, ...).

## Erlazionatutako araudia (Estatistikako eta Datu Babeseko Legeak).

4/1986 Legea, apirilaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikarena.

1989-1992, 1993-1996, 1997-2000, 2001-2004 eta 2005-2008 Euskal Estatika Planen Legeak, egun indarrean, 2/2005 Legea, otsailaren 17koa, Euskal Estatistika Plana 2005-2008.

15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako.

2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa; Izaera Publikoko Titulartasun Publikoaren eta Datuak Babesteko Euskal Agentziaren datu-fitxategiak.

994/1999 Errege-Dekretua, ekainaren 11koa; honen bidez izaera pertsonaleko datuak dituzten Automatizatutako Fitxategien segurtasun-neurrien Erregelamendua onartzen da.

# Terminoen glosategia

## Sentikortasun irizpideak

Maiztasun edota magnitude tauletan gelaxka sentikorrak detektatzeko erabiltzen diren arauak. Arau horiek gelaxkari egiten zaizkion kontribuzio kopuruan (atalase-balioaren araua) edo gelaxkako kontribuzio dominanteen balioan (dominantzia arauak) oinarritu daitezke. Horietako lehenak maiztasun txikiak dituzten gelaxkak atzematen ditu, eta bigarrenak, gelaxkaren baliorako kontribuzio dominanteak dituztenak. Bi kasuetan, gelaxka horiek “arriskutsuak” izan daitezke hedatuz gero, informazio sentikorra eduki dezaketelako, edo informazio sentikorra jakitera ematea ekar dezaketelako.

## Datu pertsonalak

Bildu, erregistratu, tratatu eta transmititu daitekeen informazio numerikoa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa, akustikoa eta bestelakoa, identifikatutako pertsoneri edo identifika daitezkeen pertsoneri buruzkoa denean (hala nola, izena, abizenak, egoera zibila, sexua, adina, helbidea, gizarte segurantzako zenbakia, langilearen matrikularen zenbakia, NAN, telefono zenbakia, etab).

## Datu estatistikoak

Estatistika-unitateen (pertsona fisiko edo juridikoak, erakunde edo organismo publikoak, etab) informazio numerikoa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa, akustikoa eta bestelakoa, estatistikako helburuekin bildua eta, horrenbestez, estatistikako sekretuaren arauen menpe dagoena.

## Zeharkako identifikazioak

Zabalduta den mikrodatu-fitxategi batean dagoen biztanleria-unitate baten nortasuna ondorioztatzea, zuzeneko identifikazioa (izena, abizenak, helbidea, NAN, gizarte segurantzaren zenbakia, matrikula zenbakia, telefono zenbakia, ...) ez den beste bide bat erabiliz.

## Informazio sentikorra

Isilpeko informazioa da. Osasunari, arrazari, erlijioari, ideologiari, afiliazioari, finantzei eta abarreko buruzko informazioa eta ezaugarriak sentikorrak dira eta babes berezia behar dute.

## Erregistroen trukaketa edo permutazioa

Mikrodatuak nola hedatu kontrolatzeko metodoa da. Erregistro parekatuetan ageri diren zenbait aldagaien balioak trukatzean datza, funtsezko aldagai adierazgarri baten bidez. Literaturan, metodo honi “dimentsio askotako eraldaketa” esan ohi zaio. Eraldaketa teknika bat da hau, baldintza jakin batzuekin, estatistika-multzo bat gordetzea bermatzen duena, hala nola, batez bestekoak, bariantzak eta aldagai bakarreko banaketak.

## Gelaxkak kentzeko metodoak

Datu tabulatuei aplikatuta, gelaxkak kentzeko metodoetan, **ezabatze primarioa** eta **ezabatze osagarria (sekundarioa)** daude.

Ezabatze primarioaren bidez, ez da gelaxka esanguratsuen baliorik argitaratzen. Bestela esateko, balioak ez dira taulan aurkezten; ikur batekin ordezkatzeko dira (adb: “x” edo “s”), ezabatu beharra adierazteko. Sentikortasun irizpidearen definizioaren arabera, ondoko hauekin ezabatze primarioa egin behar da, gelaxka esanguratsuak direlako: maiztasun-tauletan balio txikiak dituztenak, eta balio txikia duten edo **dominantzia** kasu bat aurkezten duten gelaxkak, aldagai kuantitatiboen tauletan.

Gelaxka esanguratsuetan nahi den babes-maila lortzeko, batzutan ezinbestekoa da gelaxka osagarriak ezabatzea, ezabatze primarioaren balioa birkalkulatzeko beharrezko egiten dutenak: orduan, **ezabatze osagarriaz (sekundarioa)** arituko ginateke. Ezabatutako gelaxka osagarriak hautatzeko irizpidea kontu handiz aukeratu behar da, babes-maila egokia bermatzeko eta aldi berean ahalik eta informaziorik gutxien ezabatzeke.

## Mikrodatuak

Erregistro indibidualizatuen multzoa da, norbanako edo entitate ekonomiko jakinen gaineko informazioa dutenak.

## Taulak

Datu estatistikoen ustiapen sintetikoak. Horietan aldagai bat edo gehiago daude (kategorikoak edo numerikoak) eta aztertzen diren norbanakoei edo entitate ekonomikoei buruzko informazio erantsia daukate.

## Datuak aldatzeko teknikak

Datuak modu sistematikoak aldatzea dakarten prozedurak (batzutan ausaz aukeratutako datu gutxi batzuk), zifrak kasu indibidualei buruzko informazioa emateko bezain zehatzak ez daitezzen izan.

Informazio sentikorra daukan aldagai numeriko edo kategorikoa.